

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

4

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENENKO ETA
TURISMOKO DEPARTAMENTUA

2015eko urtarrilaren 27ko 9 LG zk. FORU AGINDUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzen 2015eko deialdia onartzen duena.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputatuak 2015eko urtarrilaren 27an ondorengo agindua eman du:

2008ko uztailaren 29ko 66/08 Foru Dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen ditu. Foru Dekretu horren II. Tituluko VII. Kapituluak Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardotarako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzak arautzen ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren 2015eko aurrekontuetan, adierazitako diru laguntzetarako baliabide ekonomikoak 78.486,40 euro izango dira.

Laguntza programa horren deialdia onartzea Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputatuari dagokio, laguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta, hala ezartzen baitu 40.4 b) artikuluan eta xedapen gehigarrian (2008ko abenduaren 23ko 9/08 Foru Arauaren 14. Xedapen Gehigarriak aldatutakoan) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/05 Foru Arauak.

Hori horrela, foru diputatu honek,

EBATZI DU

Lehenengo. Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzen 2015eko deialdia onartzea, foru agindu honen eranskin gisa doana.

Bigarren. Baimena ematea 78.486,40 euroko gastua egiteko, Landaretzaren Sustapena eta Esperimentazioa programako 1.0630.330.780.00.01.2015 kontu saiaren kargura, deialdi horri aurre egiteko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dion administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertze hau-tazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori egin ez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN, DESARROLLO
RURAL Y TURISMO

ORDEN FORAL n.º 9 LG, de 27 de enero de 2015, por la que se aprueba la Convocatoria correspondiente al ejercicio 2015 de las ayudas a la plantación, mantenimiento, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El Diputado Foral del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo, con fecha 27 de enero de 2015, ha dictado la siguiente Orden:

Mediante el Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, se reguló el régimen de ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa. El Capítulo VII del Título II de dicho decreto foral regula las ayudas a la plantación, mantenimiento, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Los recursos económicos previstos para el pago de estas ayudas en los presupuestos del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el ejercicio 2015 ascienden a un total de 78.486,40 euros.

De conformidad con lo establecido en el artículo 40.4 b) y en la disposición adicional (modificada por la Disposición Adicional 14.ª de la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde a este diputado foral del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo, por razón de la cuantía, la aprobación de la convocatoria de ayudas.

En su virtud, este Diputado Foral.

RESUELVE

Primero. Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2015 de las ayudas a la plantación, mantenimiento, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, convocatoria que se acompaña como Anexo a la presente orden foral.

Segundo. Autorizar un gasto de 78.486,40 euros, con cargo a la partida 1.0630.330.780.00.01.2015 del programa de Promoción y Experimentación Vegetal, para hacer frente a la citada convocatoria.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia/San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el

edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2015eko urtarrilaren 27a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, idazkari teknikoa. (945)

ERANSKINA

2015eko ekitaldiari dagokion deialdia, Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzak ematekoa.

Lehena. Oinarri arautzaileak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituen 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretua (2008ko abuztuaren 12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 153. zk.), 2008ko urriaren 14ko 73/2008 Foru Dekretuak (2008ko urriaren 15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 198. zk.), 2009ko martxoaren 17ko 9/2009 Foru Dekretuak (2009ko martxoaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 55. zk.), 2010eko maiatzaren 25eko 15/2010 Foru Dekretuak (2010eko ekainaren 1eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 101. zk.), 2012ko maiatzaren 29ko 29/2012 Foru Dekretuak (2012eko ekainaren 4eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 105. zk.) aldatutakoa eta 2014ko maiatzaren 20ko 16/2014 Foru Dekretuak (2014ko maiatzaren 26eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 97. zk.) aldatu zuten.

Bigarrena. Onuradunak.

Deialdi honetan jasotako laguntzak lortu ahal izango dituzte 2008ko uztailaren 29ko 66/08 Foru Dekretuaren 99 artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituztenek.

Hirugarrena. Subentziona daitezkeen inbertsioak.

Subentziona daitezkeen inbertsioak, 2008ko uztailaren 29ko 66/08 Foru Dekretuaren 100. artikulua adierazitako baldintzak betetzen dituztenak izango dira.

Sagarrondoan landaketen prestaketa lanak urte naturalarekin bat ez datozenez, 2014ko azaroaren 1etik aurrera hasitako inbertsioak ere lagungarriak izan daitezke.

Laugarrena. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.

Laguntza eskaerak, ustialekuari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu beharko dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia argitaratzen den egunetik 2015eko otsailaren 27ra bitarte, biak barne.

Eskatzaile bakoitzeko, urtean eskaera bakarra onartuko da.

Bosgarrena. Eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailea bakarkako titularra bada:

— NAREN fotokopia, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren esku ez baldin badago.

b) Ustialekuaren titularra pertsona juridikoa bada:

— IFZren fotokopia, eta legezko ordezkariaren NAREN fotokopia, baldin eta Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak lehendik ez badauka dokumentazio hori.

— Eraketa eskrituraren eta estatutuen fotokopia konpultsatua.

de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 27 de enero de 2015.—El secretario técnico, Alfonso Acarreta Rodríguez. (945)

ANEXO

Convocatoria correspondiente al ejercicio 2015 para la concesión ayudas a la plantación, mantenimiento, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Primero. Bases reguladoras.

Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 153, de 12 de agosto de 2008), modificado por los Decretos Forales 73/2008, de 14 de octubre, (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 198 de fecha 15 de octubre de 2008), 9/2009, de 17 de marzo (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 55 de fecha 24 de marzo de 2009), 15/2010, de 25 de mayo (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 101 de fecha 1 de junio de 2010), 29/2012, de 29 de mayo (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 105 de fecha 4 de junio de 2012) y 16/2014, de 20 de mayo (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 97 de fecha 26 de mayo de 2014).

Segundo. Personas beneficiarias.

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente convocatoria aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 99 del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio.

Tercero. Inversiones subvencionables.

Se considerarán inversiones subvencionables aquéllas que cumplan los requisitos del artículo 100 del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio.

Considerando que las labores preparatorias para la plantación de manzanos no se ajustan al año natural, podrán ser auxiliadas aquellas inversiones que se hubieran iniciado a partir del 1 de noviembre de 2014.

Cuarto. Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes de ayuda deberán presentarse en las Oficinas Comarcales Agrarias correspondientes a la ubicación de la explotación agraria, a partir de la fecha de publicación de la presente convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y hasta el 27 de febrero de 2015, ambos inclusive.

Sólo se admitirá una solicitud de ayuda por persona solicitante y año.

Quinto. Documentación a aportar por las personas solicitantes.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Si se trata de persona titular individual:

— Fotocopia del D.N.I. en caso de que no obre en poder del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

b) Si se trata de explotación cuya titularidad la ostenta una persona jurídica:

— Fotocopia del N.I.F., y fotocopia del D.N.I. del representante legal, en ambos casos, siempre que dicha documentación no obre en poder del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

— Fotocopia compulsada de la escritura de constitución y de los estatutos.

– Erakundearen gobernu organoak eskaera eskatzeko eta ordezkaria izendatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

– Bazkideen zerrenda, bakoitzak kapital sozialera egindako ekarpenarekin.

c) Guztiek:

– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteazeari dagokionez, pertsona eskatzailea egunean dagoelako ziurtagiriak. Hala ere, dokumentazio hori ez da aurkeztu behar, eskaera inprimakian interesdunak Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuari aipatutako datuak horiek emandako organismoetatik zuzenean jasotzeko baimena berariaz emanez gero.

– 2008ko uztailaren 29ko 66/08 Foru Dekretuaren 99. artikularen 1. atalak aipatzen duen ahalmena eta lanbide eskumena kreditatzen duen dokumentazioa.

– «Minimis» laguntzen erantzukizun-aitorpena, II. Eranskinean sartzen den ereduaren arabera, eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko ezin debekurik ez izatearena.

Seigarrena. Inbertsioak baloratu eta egiaztatzea.

Diru laguntzaren ordainketari ekiteko, aurretik, Landare Aloreko Unitateko edota Eskualdeko Nekazaritza Bulegoko teknikariak inbertsioa egin dela egiaztatuko du. Horretarako, egindako inbertsioaren gastua zuritu egin behar da, 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutako eran.

2015eko ekitaldian diruz laguntzekoak diren inbertsioak baloratzeko deialdi honetako I. eranskinean adierazitako moduluak ezarriko dira.

Laguntzen xede diren obren zati bat onuradunak berak eta bere familiak egindakoa denean, inbertitutako lanorduen justifikazioa I. eranskinean ezarritako ordu kostuetan oinarriturik onuradunak aurkeztutako balorazioaren bidez egingo da eta, berezko esku lanetan gehienez ere inbertsioaren kostu osoaren %50 kontuan hartu ahal izango da.

Zazpigarrena. Laguntzen finantzazioa eta aurrekontua.

2015eko ekitaldiari dagozkion diru laguntzak ordaintzeko, hasiera batean izendatutako diru baliabideak 78.846,40 eurokoak dira, Landaretzaren Sustapena eta Esperimentazioa programako 1.0630.300.780.00.01.2015 kontu sailaren kargura.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Zortzigarrena. Jakinaraztea.

Prozeduraren ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaie, 1992ko azaroaren 27ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59. artikulua jasotakoaren arabera.

– Certificación del acuerdo adoptado por el órgano de gobierno de la entidad para solicitar la ayuda y designar representante.

– Relación de socios con su aportación al capital social.

c) En todos los casos:

– Certificados de que la persona solicitante se encuentra al corriente de sus obligaciones fiscales y en el pago de las cotizaciones a la Seguridad Social. No obstante, la presentación de dicha documentación no será necesaria en caso de que en el impreso de solicitud, la persona interesada haya manifestado expresamente que autoriza al Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo a recabar los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos.

– Documentación acreditativa de la capacidad y competencia profesional a la que se refiere el apartado 1 del artículo 99 del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio.

– Declaración responsable, conforme modelo que se incluye en el Anexo II, de ayudas «de minimis» y de no hallarse incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Sexto. Valoración y justificación de las inversiones.

El pago de las subvenciones estará condicionado a la certificación por personal técnico de la Unidad del Área Vegetal o de la Oficina Comarcal Agraria de la realización de la inversión, previa justificación de su importe en los términos establecidos en el artículo 23.2 del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio.

Para la valoración de las inversiones para las que se solicite ayuda en el ejercicio 2015, se aplicarán los módulos indicados en el Anexo I de esta convocatoria.

Cuando parte de las obras objeto de ayuda hayan sido realizadas por la propia persona beneficiaria y su familia, las horas de trabajo invertidas se justificarán mediante valoración presentada por el/la beneficiario/a, en base a los costes horarios establecidos en el Anexo I, siendo computable a efectos de ayuda un máximo en mano de obra propia correspondiente al 50% del coste total de la inversión.

Séptimo. Financiación y presupuesto de las ayudas.

Los recursos económicos inicialmente destinados al pago de las ayudas correspondientes a la convocatoria del ejercicio 2015 serán imputables a la partida presupuestaria 1.0630.300.780.00.01.2015 del programa de Promoción y Experimentación vegetal, por importe de 78.486,40 euros.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

Octavo. Notificación.

La resolución del procedimiento será notificada a todas las personas interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

I. ERANSKINA

Inbertsio lagungarriak eta horien exekuziorako eskulana 2015eko ekitaldian baloratzeko moduluak.

ANEXO I

Módulos para la valoración de las inversiones auxiliares, así como de la mano de obra utilizada en su ejecución en el ejercicio 2015.

<i>Inbertsio lagungarriak / Inversiones auxiliares</i>	€
Sagardotarako sagarrondo landaketa, patro frankotan (ha) Plantación manzano sidra sobre franco (ha)	3.935,00
Sagardotarako sagarrondo landaketa, ontziko patroi klonalean (ha) Plantación manzano sidra sobre clonal en vaso (ha)	6.720,00
Sagardotarako sagarrondo landaketa, erdiko ardatzeko patroi klonalean (ha) Plantación manzano sidra sobre clonal eje central (ha)	11.056,00
Sagardotarako sagarrondo landaketa, frutal hesia patroi klonalean (ha) Plantación manzano sidra sobre clonal muro frutal (ha)	16.009,00
Landaketa babesteko hari bateko sare galbanizatuko hesiak (metro lineala) Cercas para protección de la plantación (malla galvan.+un hilo) (m.l.)	4,80
Landaketa babesteko ehiza espezieentzako itxiturak (oreinak, orkatzak, etab) (metro lineala) Cercas cinéticas para protección de la plantación (ciervos, corzos, etc.) (m.l.)	15,21
Lursailen zapaldak prestatzea fruta arbolak landatzeko (ha) Preparación terreno en bancales para plantación frutales, etc (ha)	20.000,00
Sagardietara pista irekitzea eta enkatxoa (metro lineala) Apertura pista a manzanales y encachado (m.l.)	32,00
Hormigoizko pista sagardietara, irekiera eta enkatxorik gabe (m ²) Hormigonado pista a manzanales sin apertura ni encachado (m ²)	25,00
Harri-lubeta (harri lubetaren batezbesteko dentsitatea 1,8 tm/mt/m ³) (tm) Escollera (densidad media de escollera 1,8 tm/m ³) (tm)	24,22
Lursailaren sastraka garbitzea (ha) Limpieza y desbroce del terreno (ha)	1.321,02

Berezko esku lana.

Laguntza jasotzeko gai diren lanak onuradunak berak eta bere familiak egiten dituztenean, sartutako orduak 19,75 euro/ordu baloratuko dira.

Mano de obra propia.

Cuando parte de las obras objeto de ayuda hayan sido realizadas por el propio beneficiario y su familia, las horas de trabajo invertidas se valorarán a razón de 19,75 euros/hora.

II. ERANSKINA

AITORPEN ERANTZULEA

.....
jaunak/andreak, adinez nagusiak, zk.ko
NA duenak,(e)ko
kalean, zk.an bizi denak,ren
ordezkaritzan (.....zk.ko IFK eta
helbide soziala duena) ondorengo adierazten du:

1. Ez bera ezta berak ordezkatzeko enpresa ere ez daudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12 artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeretan.

2. Azken hiru urteetan aurrekontu publikoetatik erakunde publiko edo pribatuaren «de minimis» izeneko diru-laguntza hauek (15.000 euro baino gutxiagokoak) eskuratu dituela:

ANEXO II

DECLARACIÓN RESPONSABLE

D/D.^a
mayor de edad, con DNI n.º y domicilio en
....., en
representación de, con
CIF y domicilio social en
....., declara:

1.º Que no concurren ni en él/ella ni en la empresa a la que representa ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.º Que todas las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos recibidas en los tres últimos años, cuyo importe total es inferior a 15.000 euros, son las siguientes:

<i>Erakundea Organismo</i>	<i>Deialdia Convocatoria</i>	<i>Onartze data Fecha aprobación</i>	<i>Jasotako kopurua Importe recibido</i>

3. Konpromisoa hartzen duela ekitaldi fiskal honetan aurkeztzen dituen diru laguntza-eskaerak eta lortutako laguntzak jakinarazteko.

(Lekua, data eta sinadura).

3.º Que se compromete a comunicar otras solicitudes de ayuda que presente en este ejercicio fiscal, así como las ayudas que le sean concedidas.

(Lugar, fecha y firma).